



EUSKARAZKO DEFINIZIO TERMINOLOGIKOAK IRIZPIDEAK





DEFINIZIO TERMINOLOGIKOETARAKO IRIZPIDEAK

1. Definizioetan, erlatibozko perpausaren barruan egotea dagokien sintagmak ez dira handik atera eta izenaren eskuinean emango.

- *Bi oinak aldi berean zorian pausatzerakoan gertatzen den geraldia, botearen ostekoa nahiz pase bat jaso ondorengo.* (Eta ez *“Bi oinak aldi berean zorian pausatzerakoan gertatzen den geraldia, botearen ostean nahiz pase bat jaso ondoren.”*)
- *Arbitro nagusiari jokoaren gorabeherak zuzentzen laguntzen dion arbitroa; laguntza hori ez dio ematen arautegiak arbitro nagusiari egozten dizkion zeregin teknikoetan.* (Eta ez *“Arbitro nagusiari jokoaren gorabeherak zuzentzen laguntzen dion arbitroa, arautegiak epaile nagusiari egozten dizkion zeregin teknikoetan izan ezik.”*)

2. Deskriptorea aurreratzea, hobeto ulertzekoa

- *Joko-egoera bat da; alboko sake baten edo bi aurkariren arteko jauzi baten ondotik jokalaria batek baloia ukitzen duenean gertatzen da, edota jaurtiketa libre bat egiteko arbitroarengandik baloia jasotzen duenean.* (Eta ez *“Alboko sake baten edo bi aurkariren arteko jauzi baten ondotik jokalaria batek baloia ukitzen duenean, edota jaurtiketa libre bat egiteko arbitroarengandik baloia jasotzen duenean gertatzen den joko-egoera.”*)
- *Jokorako balio ez duela geratzen den baloia; hala geratzen da saskiratze baten ondoren, arbitroak falta bat edo arau-hausteren bat adierazten duenean, kronometratzaileak seinale akustiko bat (hots bat alegia) egiten duenean, eta abarretan.* (Eta ez *“Saskiratze baten ondoren, arbitroak falta bat edo arau-hausteren bat adierazten duenean, kronometratzaileak seinale akustiko bat (hots bat alegia) egiten duenean, etab.etan jokorako balio ez duela geratzen den baloia.”*)